

2017ko otsailaren 20an, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Batzorde Zuzentzaileak, besteak beste, ondokoa erabagi daua:

7.- GIZARTE HEZIKETARAKO ESKU HARTZE ZERBITZUAREN ESLEIPENA ONARTZEA

Xedea

Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzuaren esleipena onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko irailaren 29an, Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua kontratatzeko lehiaketa irekia bidezko esleipen espedienteari hasiera emotea onartu zan.

Bigarrena: Agintzari kooperatiba izan da proposamena aurkeztu dauan elkarte bakarra, 130.500 euroko proposamena egin daualarik. Txosten teknikoa egin da.

Hirugarrena: Agintzari Kooperatibak esleipenerako baldintzak betetzen dauzala ikusita eta dokumentazio guztia zuzen aukeztuta, Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua Agintzari Kooperatibari esleitzea proposatu da 130.500 eurogaitik.

Laugarrena: Esleipenerako beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin jako Agintzari Kooperatibari eta dokumentazio guztia zuzen aurkeztu dau.

Argudioak

Espediente behar bezala izapidetu da

Erabagia

Lehenengoa: Gizarte Heziketarako Esku Hartze zerbitzua Agintzari Kooperatibari esleitzea 130.500 eurogaitik. (BEZatik salbuetsita dago)

Bigarrena: Kontratua sinatzea 2017ko martxoaren 1etik 2018ko otsailaren 28ra.

